

Euskal egunkariaren ikuspegia

In: Argia: *Euskal Kulturaren Urtekaria 1992*, Zeruko Argia, Lasarte, 1992.

Euskal Egunkari bati zer eginkizun ikusten dizkiodan galdetu dit lankide batek. Kazetari bezala, alegia, zeintzuk izango litzatezken nire ustetan gure egunkari ideial baten doaiak eta helburuak.

Ongi idatzia eta irakurtzeko erraza nahi nuke, Euskal Herri osoko irakurle orok aise eta gustora mundu zabaleko eta bertoko berriak irakurriko lituzkena. Honetarako behar du egunkari honek egia esaten ahalegindu, gauzak zuzen eta garbi esaten asmatu, eta honetarako behar duen asmo zintzoaz gainera behar du askatasuna gauzak esateko, diruz eta politikaz loturarik gabe. Prentsa, diruak lotu ohi duenez gero, ez du euskal egunkari bakar honek inongo traba egingo dion dirurik behar, kioskoetan edo harpidetza bidez eta saltzen duen publizitatearen sari modura jasotzen duen diruaz bizi behar du egunkari batek mundu demokratikoan.

Badakit, hizkuntza minorizatua izanik, ia orain arte eskoletan erakutsi ez den hizkuntza batek zailtasunak berekin eta justuak ez diren karga bereziak dituela, eta hala ere neuk ez nuke laguntza eskatuko, erakunde ofizialekanako zordun geratu ez gaitezen, baizik eta mamuaren, aginte publikoaren eta politikaren, menpe inoiz gera ez gaitezen.

Esango nauzu, hauxe dela egiten ari garen halegina.

Eta egia da.

Baina egia osoa izateko falta zait esatea euskal egunkariak, herrian egiten diren beste erdal egunkari guztiak bezala, merezi eta behar duela gutxienez, euskara hizkuntza ofiziala delako, ez Madrilen, Euskal Herrian, gutxienez Eusko Jaurlaritzatik eta Diputazio Nagusietatik eta gainontzeko administrazioetatik, guztietatik, gutxienez geuk saltzen dugun proportzioan, publizitatearen normak jarraituaz, saltzen dugunaren neurrian munduko egunkari guztiak bizitzeko jasotzen duten publizitatea.

Eta honetan diskriminatzen gaituela Administrazio euskaldunak.

Halere, gure gerente den Joxemi Zumalabek sortzen dituen irabazbide burutsuei esker: gure salmentarako Gida dela, bidaien zerbitzu bat eskainiz, herrietako jaien inguruan sortzen dituen gehigarriak prestatuz, eta denen gainean ekonomi estu zuhurra laneko harraminta zorrotza eta sakrifikatua medio, ari da gure jendea, Joxemi buru, baina beste buru asko dituela; euskararen alde ia bi urtetarako bidean egunero egiten den mirari hau exenplu handi bat gure gaurko herriaren ekonomia ofizial lasaiarentzat, gutxiena esateko.

Hor daude agerian bi jokabideak euskaldunen begien aurrean.

Geuk gure aldetik eskatu nahi dizkigun kontu guztiak emateko prest gaude gertatzen ari dena argitzeko.

Baditugu, bestela ez genuen hasteko biderik izango, baditugu hasieratik "Euskaldunen Egunkaria" martxan jartzeko erosi dituzten akzioak, ahal duenak ahal duen moduan, askotan langile taldeak bildu eta erosiak ere bai!, bestetan jaso duten

literatur sari baten erdia eskainiaz, nonbaiteko likidazioaren diruak Egunkariari emanez; hauek dira, sinistea zaila bada ere, gure herriko iturriak, eta euskaldunak orokorrean apostulariak garenez, eta ni ez, hala ere egingo nioke edonori kasu hauek probatzeko trabesari.

Euskarak kemena handia duela erakutsi du, bai ikastolen fenomenoan, eta baita Egunkariarenean ere.

Bada sinisten ez duenik, baina mirari hauek ere gertatzen dira.

Honetarako behar da fede apur bat; eta Ebangelioak dioen bezala, 'ekintzak'; ekintza gabeko fedea ez baita egiazko fedea; San Pablori galdetu!; eta euskararen aldeko ekintzak ere erakutsi egin behar dira, esaneko hutsak ustelak dira gehienetan eta.

Hau da orain arte egindakoa; zer egin nahi genuken ametsa betetzeko?

Nahi genduke, Bigarren Pauso batetan, gaurko salmenta bikoiztu, eta gaur Egunkariak dituen 40.000 irakurleak 100.000 izatea. Ehun mila irakurle euskaraz egunero sortzea izango litzateke gure ametsa gaur hauxe delako, eta gure eskuetan dagoena; garaipen olinpikoa bat eskaintzea izango litzateke, katalanek lortu berri duten antzekoa.

Honetarako, behar dugu, gaurko 32 orrialdetik 64ra pasa, orrialde bereziak izan berriak jasotzeko, jaiotzetatik heriotzetara, herrietako berrien egiazko pultsoa emanez. Erdal egunkari batzu egiten duten modura. Hau lortzen ez dugun bitartean ez dugu "Euskaldunon Egunkaria" geuk nahi bezala osatuko. Nor edo nortzuk dira txikieria asko eta arnas gutxiko bidetik hau oztopatzen ari direnak?

Euskarak ezagutzen ditu ongi.*

* Honez gero irakurlearen maliziak esan du beretzat, zer diren, bada, Gipuzkoako Diputazioak agindu berriak dituen 50 milioiak. Gordea neukan neronek ere erantzuna: Gipuzkoako Legebiltzarrak erabaki duen laguntza hau, orain arte publizitate bidetik eman ez eta zor diguten zati txiki bat dela, eta asmo honekin onartu dugula alderdi batzuen eragin jatorraren ondoren bezala. Norbaitek eman behar zuen lehen pausoa, eta Gipuzkoa izan da. Eskerrik asko, eta bejondiola.